

Patri Urkizuren *Sekulorun sekulotan* 50 urteren ondoren: iraganeko kaleitsuak eta etorkizuneko potentzialitateak

Patri Urkizu's *Sekulorun sekulotan* after 50 Years: Blind Streets of the Past and Future Potentialities.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

UPV-EHU / UPPA
gbereziartua001@ikasle.ehu.eus

Recepción: marzo de 2025. Aceptación: mayo de 2025.

Laburpena: 50 urte igaro dira Patri Urkizuk *Sekulorun sekulotan* eleberri esperimentalaren argitaratu zuenetik. Mende erdiak eskaintzen digun perspektibatik, artikulua honetan hiru alorretatik errebisatuko dugu nobela: liburu horrek irakurleari planteatzen dion erronka zertan datzan aztertuko dugu lehenik, analisi diskurtsiboaren eta narratologiaren ekarpenak baliatuz. Jarraian, obra bere testuinguru historikoan kokatuko dugu, euskal literaturak 1970eko hamarkadaren bigarren erdian izan zuen momentu esperimentalaren lan adierazgarri gisa. Mota horretako apustu formalak agortutako bidetzat jo izan dira urte luzez eta horren zergatiak analizatuko ditugu, modernismo literarioaren sorrerarekin analogia historiko-literario bat proposatuz. Azkenik, gaur egungo euskal eremu literarioaren egoera kontuan hartuta, *Sekulorun sekulotan*-ek XXI. mendean izan ditzakeen irakurketa gaurkotuak proposatuko ditugu, atzerriko literaturetatik euskarara itzulitako obren *corpus*-arekin erlazionatuz.

Gako hitzak: Euskal literatura, literatura esperimentalaren, modernismoa, itzulpen gintza.

Abstract: It's been 50 years since Patri Urkizu published his experimental novel *Sekulorun sekulotan*. From the perspective that half a century offers us, in this article we will review the novel from three areas: first, we will analyse what the difficulties that it poses to the reader consist of, taking advantage of the contributions of discursive analysis and narratology. The novel will then be placed in its historical context as a representative work of the experimental moment of Basque literature in the second half of the 1970s. Our goal will

be to understand why formal innovations such as those proposed by Urkizu have long been considered unproductive, by suggesting a historical and literary analogy of Basque experimentalism with the beginnings of literary modernism. Finally, considering the current situation of the Basque literary field, updated readings of *Sekulorun sekulotan* in the 21st century will be proposed, relating it to the corpus of works translated into Basque from foreign literature.

Keywords: Basque literature, experimental literature, modernism, translation studies.

I. SARRERA

Argitaratu zenetik mende erdia igaro denean, *Sekulorun sekulotan*, Patri Urkizuren estreinako nobela, irakurlearentzat erronka da oraindik, besteak beste haren apustu formal dela-eta: «... komarik eta punturik gabeko nobela hau, [James] Joyce-ren kutsu bat eta halako [Philippe] Sollers-en eragin bat duen obra...», Ramon Saizarbitoriak hitzaurrean (1975: 7) erabilitako hitzekin esateko, ezohiko pieza dugu euskal literaturaren historian.

Eleberraren lehen paragrafoa izan liteke irakurleak aurrean duen dilema zein den ulertzeko lagin adierazgarri bat:

HOBETU huke popatik hartzera joanen bahintz itsas ertzera borobiltasunezko ezintasunaz lehertzen zegoen miren odol bero eta bigunez masailak epeltzen zitzaizkion negu gorriaren egun labur eta gau neketsu luzeetan zehar bat eta huts bat eta bi eta hiru eta lau eta batez kizkurturik magal inguruan dardarka mindura gogor batek kilikatzen zion noizbait hume zoragarri eta beltzaren izanen zenek non eta nola sortu ote zuen gizarajo hark haragi lodi eta freskoez gainezka zegoen aingeru xarmant hura mahai gainean zenbait paper sakabanaturik daude eta andanan jartzen dizkint zeren zeren fanderiako pentsuak ez merkeenak bai onenak libertatia zein eder den begi urdin eta trapuzko mingain motel eta fargarririk ukanen zuen ez ez da hau lan erraza zer sakea duen aluita horrek maitale arrotz samarra bustiaz eta begirada hotz galdekoiaz sartu zenean barnera kaskagorrik pilota gibelera botiaz eta aunitz arriatuaz esan zion amari mandalertzera laisterkaturik egia bai pattala dela atzelarien ezkerre eskuina legez bezalakatuko baluke ez zion inork janen arropak bustirik daudenak kentze arren eta batera hala laztantzen zuen ezpain bietan eta hauraren kopeta iluna ama gaztearen ipurdi behean gordetzen izter eta gonaerdiko zeharketan indarrez lotzen eta gezurra badirudi ere gehienetan bata bestearekila lotu gabe gelditzen ziren ezkereskuin eta humeamaren zilbor hesteen gorapilo bigun latzari ihesi doaz beren bizitza osoan gerla hasi zenerako ez genuen espero zoko honetarat helduko zenik ez zaldi troparik ez zalapartarik askoz ere guttiago lau senide eramane zizkigunik... (Urkizu 1975: 23-24).

Zergatik dago *Sekulorun sekulotan* horrela idatzia? Gorago esan bezala, komarik eta punturik gabeko paragrafoa izateak deitzen du arreta lehen

irakurraldian, baina, gainera, nahastuta ageri zaizkigu pertsonaiak, eszenak, garaiak, elkarrizketak, iragarkiak... justaposizio erradikal horren erdian, kontakizunaren hariaren bila dabil irakurlea etengabe.

Saizarbitoriak, aipatutako hitzaurrean, nobela hau bere momentuko joera literarioetan kokatzeko marko teorikoa osatu zuen, liburuaren planteamendu formal bereziari ekin aurretik irakurleak testuingurua eduki zezan. Hasteko, bere belaunaldiko irakurleen esperientzia esplikatzen zuen: «[Albert Camusen] “Arrotza” mesanotxe gainera aldendu berria gurelarik N. Sarraute eta A. Robbe Grillet azaldu zitzaizkigun. Hauentzat ez du sentidurik errealitateari sentidurik edo esplikaziorik bilatzeak. Irakurlea organikoki bizitzen den esperientziaren mailan jartzen dute, mundua dominatu gabe mundu beraren zati bat, prolongazio bat besterik ez den kontzientziaren barnean» (Saizarbitoria in Urkizu 1975: 10).

Nobelagintzari forma berria emateko apustua dago, beraz, bai aipatzen dituen *nouveau roman*-eko egileen idazkeran, baita Urkizuren lan honetan eta aurrerago aipatuko ditugun beste euskal narrazio-lan garaikide batzuetan ere. Apustu hori zertan gauzatzen den ulertzeko, Saizarbitoriaren hitzak lagungarriak dira berriz ere: «Plano bakar batetan, perspektibarik gabe, hemendik, memento honetatik erten gabe, detaileak bata bestearen ondoren ordenatzen dira. Ez da gauzen gertaeren eta sentimenduen artean jerarkiarik egiten, horrela harreman materialak botere esajeratu bat irabazten dute. Mundua ez da —dio Robbe Grillet-ek—, ez intelijentea ez absurdoa, hor dago, besterik ez» (*ibid.*: 11-12). Eta aurrerago: «Narratibak —imitatu gabe— hizkuntz zinematografikotik hain urrun ez dabilen estilo bat erabiliko du. Nobela bizitzaren gauzen detaile objektibo eta tipien flash gataiatu bat izanen da. Flash horiek ezin dute noski kontzientziarik erdietsi» (*ibid.*: 12).

Garaiko joeretan oinarritzen den irakurketa horri mende erdi bateko tarteak eskaintzen duen perspektiba gehitzen badiogu, berrikuntza formal horrek planteatzen dituen arazoak ere ikusteko moduan gaude gaur egun. Izan ere, hona ekarri ditugun *Sekulorun sekulotan*-eko lehen lerroetatik nobelaren amaieraraino, gradu batean edo bestean, Tzvetan Todorov-ek diskurtso psikotikoa literaturarekin harremanetan jarri zuenean (2012) adierazitakora hurbiltzen da testua: elementu linguistikoen funtzionamendu zehatz baten aurrean gaude, zeinean erreferentziaren nahasmendua etengabea den, disfuntzio metalinguistikoaren bidez.

Diskurtso konbentzionaletan, esaldi bakoitzak dauka aurreko edo ondorengo esaldiekin lotzen duen erreferentzia-punturen bat eta horrek ziurtatzen du diskurtso osoaren koherentzia. Ekarri dugun zatian ordea, paragrafo berean puntuaziorik gabe bilduta agertzen diren esaldiak segmentuka banatuta ere, ia ezinezkoa da bakoitzaren erreferenteak zein diren identifikatzea. Lokailuak erabiltzen direnean —«zeren zerene», adibidez—, ez dago batere argi kausalitate-harreman baten aurrean gaudenik eta gainera, apenas erabiltzen diren. Todorov-ek «asindeton semantiko» gisa izendatu zuen fenomenoa errepikatzen da ia irakurraldi osoan. Asindeton arruntean bezala, elipsian oinarritzen da asindeton semantikoaren prozedura ere, baina kasu honetan lokailuen erabilera faltaz gain, elkarren ondoan agertzen diren perpausen artean ez dago edukizko

harremanik. Lokailu faltak eta edukizko harreman horren gabeziak eraginda, ezinezkoa da esaldien arteko hierarkiarik ezartzea.

Ikerlari franko-bulgariarrak diskurtso mota hori erlazionatu zuen literaturan XVIII. mendetik garatzen ari zen bideetako batekin: hizkuntzak mundua den bezala imitatu zezakeen ideia alde batera utzita, idazkera osoki beregainaren aldeko hautua egin zuten *Sturm und Drang* mugimendu proto-erromantikoko kideek, kanpoko ezeri lotuko ez zitzaion poetika baten bila. Todoroven esanetan, 1970eko hamarkadaren amaieran literaturaren ideia erromantiko horrek oraindik indarrean jarraitzen zuen.

Ikusmolde literarioen eta diskurtso psikotikoaren arteko harremana urrunago ere eraman liteke. Errepresentazioaren aurkako erreakzioa XIX. mendean paranoikoen modura egiten da: analogia unibertsalak, elkarrekikotasunen munduak ezaugarritzen ditu erromantikoa eta sinbolistak (...). Gure garaian [1978] aldiz, erreakzioa eskizofrenikoa da: ez da ohiko moduan errepresentatutako mundua ordezkatu nahi beste batengatik, errepresentazioa bera da errepresentazio ezari bide eman behar diona. Eta ideal horretara gehien hurbiltzen diren literaturaren prozedurak ez dira oso diferenteak aztertu berri ditugunetatik [diskurtso psikotikoaren aldaeretatik]¹ (Todorov 2012: 113-114).

Modu horretan eraikitako diskurtso narratiboak oso lan konplexua eskatzen dio irakurleari, zer kontatzen duen hautemateko beharrezkoak lituzkeen ainguratze-puntuak falta zaizkiolako. Horixe da irakurlearen dilema *Sekulorun sekulotan*-en aurrean: kontatzen duena *ulertzen* saiatu behar du edo asmo hori alde batera utzita irakurtzen jarraitu? Testu literarioaren inmanentzia da, segur aski, Urkizuren lehen nobelaren funtsezko gaia, alegia, kontatzen duenak kanpoko munduarekin harremanik badu ere², lan honen zentzua obraren barnean, haren hitz-jarioak produzitzen duen estetika partikularrean bilatu behar da, gainontzean esanahiaren etengabeko suspentsioaren aurrean baitago irakurlea.

Esan dugun bezala, nobela horrela argitaratzea erabaki kontzientea izan zen Urkizuren aldetik. Mikhail Bakhtinen ekarpenei (1978) jarraituz, *Sekulorun sekulotan* amalgama gisa ulertu behar da, zeinak unitate estilistiko heterogeneoak uztartzen dituen sistema propio bat sortzeko: eleberria hizkera sozial ugariaren hibridaziotik sortzen da Bakhtinen arabera, hizkuntza-ugaritasunak zeharkatzen duen diskurtsoa da; eta haren baitan gizakia, funtsean, hitz egiten duen norbait da: «Nobelak behar ditu esatariak, zeintzuek dakarkioten haien diskurtso ideologiko originala, haien berezko hizkera» (Bakhtin 1978: 152). *Sekulorun*

¹ Todoroven aipu honi eranstean ahal zaio erromantikoen eta sinbolisten aldean XIX. mendeko nobelagintza errealistaren pretentsioak, adibidez, bestelakoak izan zirela. Stendhalek nobelaz zuen ideian –bidean zehar garraiatutako ispilu bat izatea– kondentsatzen da, beharbada, ikuspegi hori. Alegia, literaturaren «psikotizazio» prozesurik egotekotan, ez dela lineala izan XVIII. mendetik hona, ezta erabatekoa ere.

² Aipatutako paragrafoan erraz samar identifikatu daitezke, adibidez, 1970eko hamarkadan *Zeruko Argia*-n publikatutako Fanderiako pentsuen iragarkia edo *Xorriñuak kaiolan* kantako pasarte bat.

sekulotan-en kasuan, esatari horiek pilota partiduetako tantoak kontatzen dituzte eta garaiko borroka politikoekin lotura duten pasarteak agertzen dira; euskal baleazaleek Ternuako jatorrizko herrietako pertsonekin komunikatzeko asmatu zuten *lingua franca*-ren zatiak ere badaude, baita bidaien kontakizunak ere... «Gizartearen ahots ezberdin haiek modu kaotiko batean entzuten ziren, ia inolako ordenamendurik gabe», egilearen beraren esanetan (Urkizu 2023).

Baina, era berean, nobela ulertzeko modu bakhtindarrean, ahotsen amalgama horri testuingurua ematea funtsezko aukia da. «Egilearen diskurtsoak errepresentatu eta kokatu egiten du bestearen diskurtsoa, harentzako perspektiba bat sortzen du, haren argi-itzalak banatzen ditu, haren egoera eta erresonantzia guztien baldintzak sortzen ditu, laburbilduz (...) bere azentuak eta espresioak sartzen ditu, hondo dialogiko bat sortzen du harentzat» (Bakthin op.cit.: 175). Aztertzen ari garen nobelaren kasuan, ordea, hondo dialogiko hori falta da.

Beste hitz batzuekin ere esan liteke: narratzailearen instantzia (Genette 1972) bera da *Sekulorun sekulotan*-en bere espresio minimoenera, ikusezina, murriztua agertzen zaiguna. Liburuak nobelaren diskurtsoaren muga bilatzen du, baita akaso aurkitu ere, narrazio heterodiegetiko neutroaren baliabideak muturrera eramanez testuinguru argirik gabeko ahotsen *collage* bat osatzen baitu. Alde horretatik, Jean Ricardouren sailkapenari (1973) jarraituz gero, *nouveau roman*-aren bigarren aldiarekin lotu daiteke Urkizuren nobela: korrante horretako idazleek lehen fasean unitate diegetikoaren zatiketarako joera erakutsi bazuten, bigarren fasean –Ricardouk «Nouveau Nouveau Roman» deitzen duena–, «plural diegetiko baten muntaketa ezinezkoa» proposatu zuen:

Aldaera orokortuen, kontakizunen gerraren, erretoriken gatazkaren eremu erabat anitz eta ezegonkorrean alferrik eraikitzen da kontakizun bateratu bat. Erasoja jasan duen unitatearen estadiotik ezinezko unitatearen fasera igaro da. Kontakizuna, beraz, ez da desagertu: bere prozesuan ugaltu egin da, eta plural hori bere buruarekin gatazkan sartu da (Ricardou 1973: 139).

Laburbilduz, esan liteke XX. mendearen zati handi bat zeharkatu duen auzi baten isla ere badela Urkizuren estreinako nobela, geroago aipatuko ditugun kideko beste zenbait euskal liburu bezala. Roland Barthesek *Le degré zéro de l'écriture*-n (1972: 27-28) seinalatu zuen moduan, hirugarren pertsonako narratzailea eta lehenaldia erabiliz osatutako eleberriek unibertsalaren mitologia bat ezartzen lagundu zuten, burgesiaren interesen neurrira egokitua. Eta, beraz, ordena horrek joan den mendean bizi izan zituen krisi ugariarekin batera, idazketarekin lotutako aspektu gehienak ere auzitan jarri ziren. Letra modernoetan planteatutako problema nagusietako bat aurkitzen dugu, hortaz, bete-betean: ezinezko literatura baten bilaketaren testigantza da *Sekulorun sekulotan*.

II. EUSKAL LITERATURAREN MOMENTU ESPERIMENTALA

Ezohiko nobela dela esan dugu artikuluko honen hasieran, baina *Sekulorun sekulotan* ez da inola ere irla bat garaiko euskal literaturaren panoraman. Badira Urkizuren lehen eleberriarekin senidetu daitezkeen beste zenbait lan,

euskal narratibak 1970eko hamarkadan izan zuen momentu experimentalaren lekukotasuna ematen digutenak: Ramon Saizarbitoriaren *Ene Jesus* (1976), Koldo Izagirreraren *Zergatik bai* (1976) eta Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* (1976), besteak beste.

Alde horretatik, gorago aipatutako Saizarbitoriaren hitzaurrean agertzen den Camusen aipamena ez da debaldekoa, ezta beste batzuen artean Jean-Paul Sartre agertzea ere (*op. cit.*: 9). Kontuan eduki behar da existentzialismo frantsesaren partaide diren idazle horiek eragin handia izan zutela euskal nobelagintza modernoaren sorreran —bereziki Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eleberrian—. Hortaz, autore existentzialistak «mesanotxetik aldendu» eta haien lekuan *nouveau roman*-eko egileak jartzea, ez da bakarrik euskal idazleek atzerriko literaturetan bilatzen zituzten erreferentzien aipamentzat hartu behar, belaunaldien arteko «haustura poetiko» baten adierazlea ere bada (Mateo Gambarte 1996), Saizarbitoriaren hitzaurrean proposatzen den teleologian «giza kondizioaren literatura» hori gainditzen duen idazkera lehenesten den heinean.

Adierazi izan da (Juaristi 1987: 131) garai hartako gizartean nagusi zen hizkera politikoak Euskal Herriaren egoera eskema zientifiko eta arrazionalen bidez azaldu nahi zuen momentu berean, euskal narratibak zentzugabekeriaren hizkera erabiltzeko apustua egin zuela buru-argitasuna mantendu ahal izateko. Euskal nobela experimentalak plazaratu ziren garaiko testuinguru historikoa alde batera utzi gabe, beste modu batera ere esplika liteke, ordea, une zehatz horretan aipatutako idazleek hautu estetiko hori egin izana. Perry Andersonen «Modernity and Revolution» (1984) artikulua lagungarria da zentzu horretan, haren ustez modernismoak, gertakari estetiko gisa, lotura baitu iraultza sozialaren esperantzak XX. mende hasierako giroan zeukan zentraltasunarekin.

Garai historiko desberdinen arteko analogiak egitea beti ariketa arriskutsua dela kontuan izanda ere, esan liteke 1968ko gertakarien ondorengo European, orokorrean, eta zehazki Frankismoaren amaieran sartzen ari zen Euskal Herrian, berriz aurkitzen dugula Andersonek aipatutako elementu hori. *Zeitgeist* horrek eragindako esperantzak azal dezake, beraz, gure letren abangoardismoarako joera: guztia alda zitekeen ideia zebilen airean 1970eko hamarkadaren erdialde hartan. Guztia: baita literatura ere. Testuinguru horretan, antagonismo bat planteatu zuen Saizarbitoriak aipatutako hitzaurrean, berrikuntza formalen aldekoen eta haien aurkakoen artean. Honakoa zioen, Philippe Sollers-en adierazpen batzuk aipatu ondotik:

[«]Zer eta nola eskribitzearen prolema alde batetik, irakurtzearena eta eskribitutakoa konprenigarri edo konprenigaitz gertatzea bestetik oso desberdinak dira heien artean. Honek bere erantzun objetiboa du historiaren zehar. Hau da: egin izan ohi da edo ez. Historiak demostratzen duenez Sade-k egin zuen hemezortzigarren mendean eta berrehun urtez ezin ukan zuen inork ere Sade irakurri». Galdera horri Eskolaren, Estadoaren eta difusio medioen bideen mailan erantzun behar litzaioke. Ez dira bi prolemak nahastu behar, ze maizegi —eta intenzio guziarekin nahaste horretaz baliatuz— banguardiako eskritorean prozesoa edo kritika egiten baina: «ulertezinak zaretenez ez duzue

deusere esaten», izanen litzake kritika; prozesu hau burgesa edo burokratikoan izan daiteke baina beti erreakzionarioa (Saizarbitoria *op. cit.*: 20-21).

Azken lerro horiek kontuan izanda, begi-bistakoa da une jakin hartan, abangoardiaren aldeko hautua egin zuten idazleek ez zutela gaia problema estetiko huts gisa kontzeptualizatzen, garaiko auzi politikoekin harremanetan baizik.

Hala eta guztiz ere, kale itsutzat hartu izan da nobela modernista europarrak ekarritako berrikuntza estetikoak muturreko adierazpideetaraino eramane zituen euskal narratibaren bidea, bai ondorengo urteetan egindako azterketetan (Gabilondo 1991; Olaziregi 2001), baita lehenago ere, *Sekulorun sekulotan* argitaratu zenetik bost urtera, «gehiegikeria» gisa kalifikatu baitzuen Federiko Krutwigek eta honakoa gaineratu: «Ezin dugu futurismo bat egin, futurismo hortarako basea ez ba dugu» (Albisu et al. 1980).

Urkizuren nobela zuzenean aipatu gabe, baina oso posibleki hari erreferentzia eginez (Sarasola 2015: 155), Joxe Azurmendik ere narratiba berri hori agortutzat jo zuen *Oh! Euzkadi* aldizkarian urte berean argitaratutako artikulu batean.

Modu zaharrak gastatu egin badira, modu berriak martxa honetan hasi orduko gastatu behar zaizkiguk. Narratiba berri bat sortu nahi huen. Eta sortu dik, bai. Narratiba ttipia, experimental, kasi experimental hutsa, beti lehen pertsonan (psikiatraren sofa ordezkot hartu diagu literatura), instantanea sentimentalen eta obserbazio kuriosoen artxibo. Prosa intimista. Pobrea eta sinplea azken batean, gaien trataeraz nahiz estiloz. Barne monologoak eta fantasia lirikoak, beti inpresioen maila hutsean, subjektibitatearen estremoetan beti, desarroiloa asoziazio libreen bidez hara eta hona airean eramanez, edo ez eramanez (sorpresa, okurrentzia kapritxosoa, egiaz kategoria estetiko txit altutara jaso dizkiagu), etab., etab. Poesiaren nagusitasuna hautsi egin behar omen huen eta narratiba desarroilatu. Begira, ba: narratiba honek lirikaren karakteristikak guzti-guztiak zeuzkak eta beldur nauk poesia poesietan egitetik poesia prosan egitera baizik ez garela iritsi (Azurmendi 1980).

Sekulorun sekulotan-en egilea bera izan zen, gainera, handik urte batzuetara egindako apustuarekin kritikoen azaldu zenetako bat, honakoa adierazi baitzuen:

Kale itsua izan zen. Robbe Grilleten eta haren «nouveau roman»-aren teoriaren eraginpean, nouvelle critique-a, nouveau cinema, estrukturalismoa, narratiba latinoamerikarraren «boom»-a, Celaren La Comena eta San Camilo 1936 eta abar, prosa «abangoardistaren» saiakera hura egiteko ausardia eduki banuen, nire gaztetako kontzientziaren kaosa adierazteko, hura «cul de sac» bat izan zen, irteerarik gabeko kalea (Urkizu 1993: 209).

Zergatik izan zen kale itsua, ordea? Faktore historiko-kulturelei erreparatu nahi izanez gero, Andersonen aipatutako beste bi giltzarri kontuan hartu behar dira modernismoaren sorrera behar bezala ulertzeko: arteetan finkatutako

akademizismo baten presentzia eta modernizazio-prozesuekiko lilura moduko bat kulturaren alorrean. Euskal literaturaren garai hartako barne-lehiez gain³, faktore horien gabeziak beharbada lagun diezaguke ulertzen horrelako bide bat zergatik ez zen emankorragoa izan: batetik, euskaraz ekoiztutako literaturan ez da aurkitzen joan den mende hasieratik kultura nagusietako arteetan ezarrita zegoen molde akademikorik, herrialde bakoitzeko goi-klaseek markatutako kodeen arabera osatuta, zeinaren kontra jardun ahal izan zuten I. Mundu Gerraren aurreko idazle eta artista berritzaileenek. Gure letretan funtzio hori beteko lukeen klase sozial baten eta *corpus* literario finkatu baten hutsuneaz gain, kontuan izan behar da *Sekulorun sekulotan*, adibidez, 1972an idatzi zela, alegia, euskara batzeko lehen arau-multzoak onartu eta lau urte eskasera: idazteko oinarritzeko estandarra jaioberria zen; haustura esperimentalak behar zuen «arerioa» bera ere ez zen existitzen oraindik.

Bestetik, XX. mende hasierako gizarte europar oraindik masiboki industrializatu gabeen modernizazio-prozesuak eta berrikuntza teknologikoak eragiten zuten lilura –oso nabarmena futurismo italiarrean, baina abangoardiako korronte gehienek estetikari antzematen dena–, desagertua zen 1970eko hamarkadarako. «Makinaren lehen aroa amaitua zen» eta, Fredric Jamesonekin batera, zera esan dezakegu: «orain beste batean bizi gara, eta haren makinak ez dira Le Corbusier hainbeste goratu zuten ibilgailu eta silueta ikusgarri loriatsu eta arrazionalizatuak» (Jameson 2007: 236). Gainera, gorago aipatutako 1968ko giro iraultzaileak ondorengo urteetan ere oihartzunak izan zituen, baina mende hasieran ez bezala, modernizazioa eta teknikaren garapena, fenomeno liluragarri gisa baino, lanaren eta kapitalaren arteko gatazkaren muinean dagoen borroka-eremu gisa agertzen zaigu (Berardi 2024: 222).

Are gehiago, teknikaren garapen kapitalistak gutxitutako hizkuntzengan izan zezakeen eraginaz jabetzen hasiak ziren bertako zenbait ikerlari:

Beste behin esan behar da, nazio-estatu kapitalista batean sartutako taldeen hizkuntza nazionalen desagertpen prozesua ez dela, sinpleki, «prozesu natural» bat, ekonomia industrialak kapitalismoaren aurreko ekoizpen-moduen aurrean daukan dinamika handiagoari lotua. Harreman zuzena dago iraultza tekniko honen eduki burgesaren eta hizkuntza-bereiztasunaren likidazioaren artean: argi dago estatuak industrializazioaren inpaktu linguistikoa politikoki bortxatzen duela, eta praktikan jartzen duela jokaera-ildo oso bat portaera linguistikoak eraldatzeko joera duena, bere lurraldearen barruan hizkuntza-batasuna lortzeko (Lopez Adán 1976: 70-71).

Hortaz, kontra egin ahal izateko molde finkatu eta akademikoen faltan eta modernizazio-prozesu kapitalistaren alderdi ilunak agerian, Andersonek aipatutako faktoreei erreparatuz gero, literatura abangoardista europarra

³ Aipatutako Krutwigen eta Azurmendiren kritikak, adibidez, edozein eremu literariotik gertatzen diren talde eta eragileen arteko dialektikaren markoan ere kokatu behar baitira; baina kasu zehatz honetan gertatu ziren elkar-eragin horien ikerketa artikulua honen mugetatik harago dagoen lana da.

sortzeko gurutzatu ziren hiru faktoreetatik bakarrak –frankismoaren amaierak eragindako eraldaketa erradikalaren esperantzak– eusten zion. Eta hori ere, 1978ko Espainiako Konstituzioaren onarpenaz geroztik, bestelako formetarantz aldatuko zen, desliluratik 1980ko hamarkadako nihilismo punkeraino.

Literaturan bide oparoa egingo zuten momentu experimentalaren protagonistek, hala ere. Baina bestelako lanak hartu zituzten hurrengo urteetan, besteak beste gorago aipatutako oinarri faltaren arazoari aurre egingo ziotenak: Atxagak, Izagirrek eta Saizarbitoriak beste zenbaiten artean dinamizatu zituzten *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi* aldizkariak eta horietan «lanketa teoriko eta ideologiko ezinbestekoa gauzatu zen, literaturaren autonomiaren bidetik euskal esparru literarioa sortzeko» (Sarasola *op. cit.*: 10). Hori bai, ez zuten nobela berririk argitaratu hurrengo hamarkadaren erdialdera arte: 1984koa da Koldo Izagirreraren *Euzkadi merezi zuten*; 1985ekoa Atxagaren *Bi anai*; eta Saizarbitoriaren kasuan, hemeretzi urteko isiltasunaren ondoren publikatu zuen *Hamaika pauso*, 1995ean. Kasu guztietan, gradu handiagoan edo txikiagoan, aurreko lan narratiboetan nagusi zen esperimentalismotik urrundu ziren.

Urkizuk ere, Trantsizio osteko urteetan literaturari lotuta jarraitu zuen, idazle eta ikerlari gisa egindako lanak beste zeregin ugariarekin uztartuz, tartean Lezoko alkate gisa 1979tik 1983ra izan zuen ardura. 1984ra arte ez zuen Urkizuk ere nobela berririk argitaratuko: *Etsipenez. Jon Chaoren memoriaioizunak*-en oso bestelako bidetik jo zuen lehen eleberraren aldean, Jon Miranderen biografia nobelatua osatuz.

III. EUSKAL LITERATURA ESPERIMENTALAREN BIGARREN BIZITZAK

Ez da artikulu honen asmoa, hortaz, *Sekulorun sekulotan*-ek eta euskarazko narratiba esperimentalak egindako bidearen gainean dagoen kontsentsuari aurka egitea: apustu hark, momentu historiko konkretu hartan, nekez eman zezakeen eman zuena baino gehiago, artikulu honetan aipatutako faktoreak kontuan izanda. Eta, hala eta guztiz ere, zalantzan jartzeko modukoa litzateke *Sekulorun sekulotan* eta tankerako obrak erabat baztertzera eramango gintuzkeen euskal literaturaren historizazio-eredu bat. Lehenik eta behin, teorizazio abangoardistek kritikatu izan zaien etengabeko aurrerakuntzaren ideologia berbera errepikatuko lukeelako. Literaturaren historia ikuspegi teleologiko batetik ulertzen da ideologia horren baitan, aroz aro bere burua gaindituz eboluzionatuko balu bezala. Ikuspegi horren arabera, belaunaldi berri bakoitzaren apustu estetikoak aurrekoarena gainditzeko misioa dauka. Antzeko markoa proposatuko luke Trantsizio osteko euskal literaturak 1970etako aldiune experimentalak gainditu eta bertan behera utzi zuela dioten kontakizun orok ere.

Eboluzio literarioa bere konplexutasunean ulertzekotan (Tinianov 1978: 89-101), sinkronismo puruan erori gabe, fenomeno literarioen arteko konfrontazioei erreparatzea egokiagoa deritzogu. Era berean, kontuan hartu behar dira unean uneko obren elementu formalez gain erabiltzen diren elementuek zer funtzio betetzen duten une eta fenomeno bakoitzaren baitan. Bestalde, ez da ahaztu behar

korronte literario bakoitzak euste-puntuak bilatzen dituela aurreko sistemetan ere eta, horrenbestez, iraganeko joerak ez daudela inoiz guztiz agortuta.

Hortaz, uste dugu ikuspegi emankorra dela kontuan hartzea, batetik, Urkizuren lehen nobela osoa zeharkatzen zuten «gehiegikeria» estilistiko horiek baliabide bat gehiago bihurtu direla gaur egungo nobelagintzan, behin argi geratu zenean ez zirela bilakatuko bere momentuan iragartzen zuten «nobela berri» hura –Tinianovi jarraituz (*ibid.*), estilema esperimentalisten higadura gorabehera, hauek ez baitira desagertu, baina haien funtzioa, zentrala izatetik, laguntzailea izatera pasa da–. Bestetik, beharrezkoa da aztertzea ea *Sekulorun sekulotan*-ek euskal literaturaren esparruan bigarren bizitzarik izan ote duen eta zein formatan.

Horretarako, euskal eremu literarioa bere osotasunean kontuan hartzea komenigarria da, beste hizkuntzetatik euskarara itzulitako obren errepertorioa barne hartuz. Alde horretatik, deigarria da Patri Urkizuren lehen nobela nola aipatu izan den azken hamarkada honetan euskaraz publikatutako bi itzulpenen kasuan, James Joyceren *Ulyses* (2015) eta Ingeborg Bachmannen *Aldibereko* (2019) –biak ere itzulpen alorreko Euskadi Literatura Saria jaso zuten–, haiek euskaratzen aritu direnek beren lanari buruzko xehetasunak eta gogoetak argitaratu dituztenean.

Bachmannen liburua itzultzeko dokumentazio-fasean erabilitako materialen artean, jatorriz euskaraz argitaratutako hiru lan aipatu zituen Idoia Santamariak (2020), erdaretan publikatutako beste zenbait erreferentziaren artean. Haietako bat zen *Sekulorun sekulotan* –beste biak berriz, Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* eta Anjel Lertxundiren *Otto Pette*–. Ez da harritzekoa Santamariak Urkizuren eleberrira jo izana, kontuan izanda Bachmannen ipuin-bildumari titulua ematen dion lehenbiziko kontakizunak ere planteatzen diola irakurleari *Sekulorun Sekulotan* leitzen duenak onartu behar duen erronkaren antzeko zerbait. Honakoa da ipuinaren hasiera:

Bozhe moi! Hotz-hotzak zeuzkan oinak, baina Paestum izan behar zuen hark, azkenik; han zen hotel zahar hura, izena ez gogoratzea ere..., berehala etorriko zaidan, pentsatu zuen emakumeak, mihi-puntan zaukanat, baina ezin gogoratu izena. Autoko leihoa jaitsi, eta arreta handiz begiratu zuen kanpora, albo baterantz eta aurrerantz, bidearen bila, bai, credimi, te lo giuro, dico a destra, eskuinerantz egin behar zuen bidearen bila. Han zegoen, bai: NETTUNO. Gizonak bidegurutzean abiadura moteldu eta argiak piztu zituenean, berehala ikusi zuen kartela, ilunpean argiztatua, dozena bat hotel-kartel eta taberna eta hondartzetarako bidea erakusten zuten gezien anabasaren azpian, oso bestelakoa zuan lekua orduan, murmurikatu zuen emakumeak, hemen ez zegoan ezer, ezertxo ere ez duela bospasei urte, benetan, ez duk posible (Bachmann 2019: 25).

Santamariak azaldu zuen moduan, «zaila gertatzen da irakurtzean pertsona-eta ikuspegi-nahasketa hori» eta itzulpenari ekitean zalantzak izan zituen testuaren fideltasunaren eta ulergarritasunaren arteko orekari dagokionez. Apustu literarioa mugakoa denean, halakoa baita hura itzultzeko lana ere. Eta,

hortaz, muga hori esploratu duten euskarazko lan originalak material baliagarria bihurtzen dira berriz ere.

Ulises-en kasuan, berriz, Xabier Olarrak itzulpenaren ezaugarri formalak aztertzean (2022) aipatzen du *Sekulorun sekulotan*, Koldo Izagirreraren *Zergatik bai*-rekin batera. Zehazki, idazle irlandarraren obrako pasarte «txundigarriena»-rekin erlazionatu zituen euskarazko esperimentu narratibo horiek, Molly Bloomen monologoarekin, alegia. Jakina denez, Joycek pasarte horretan kontzientzia-jarioaren teknika erabili zuen pertsonaiaren barne-bakarrizketa islatzeko eta gerora teknika horren adibide kanonikotzat hartu izan da. Olarraren esanetan, «joera hori koxka bat estutuz» aritu ziren Urkizu eta Izagirre beren liburuetan.

Jarraian, atal hori itzultzearen zailtasunez ari zela, honakoa idatzi zuen Olarrak:

Baina puntuazio falta horrek hasieran asko sustatzen badu ere, esan beharra daukat episodio hori ez zitzaidala inola ere egin liburu osoko zailena, ez irakurtzeko (atzera-aurrera franko egin behar izaten dira, hori bai), ez itzultzeko. Izan ere, Mollyk darabilen hizkera aski hurbila zaio edozein irakurleri, hor ez dago inolako filigranarik, gauzak modu arrunt eta garbian (edo zikinean nahi bada) esaten ditu, eta falta duen puntuazioa jarritz gero, dena oso argi ulertzen da (Olarra 2022).

Ulgarritasun horretan legoke, segur aski, *Sekulorun sekulotan*-ekin diferentziarik handiena: puntuatu gabeko bakarrizketa zuzenak erronka izan badaitezke ere, irakurleak badaki pertsonaiaren barne-kontzientzia mimetizatze ahalegin baten aurrean dagoela. Hondo dialogikoa ere ez da hautsi. Beraz, aukera dauka pertsonaiaren barne-ahots horri nobelak osatzen duen sistema osoan kokagune bat emateko, baita esaldien erritmoa bere kasa berreraikitze ere, are gehiago hizkera ulergarrian idatzia bada.

Sekulorun sekulotan-en ikusten dugun apustuaren erradikaltasuna hobeto ulertzen da, beraz, Bachmann eta Joyce bezalako idazle modernistekin elkarriketan jarritz gero. Urkizuk batera jarri zituen praktikan aipatu ditugun bi itzulpenetan agertzen diren teknikak, alegia, pertsonaien eta ikuspegien nahasketa –baldin eta, zentzu klasikoan *Sekulorun sekulotan*-eko pertsonaiez hitz egiterik baldin bada—, eta haien ahotsak puntuazio markarik gabe ematea.

Elkarrizketa horixe da, hain zuzen, gaur egungo euskal irakurleak martxan jar dezakeena, eskura baitaizka, batetik, Urkizuren eleberria eta hura publikatu zen garaian argitaratutako euskal narratiba esperimentalaren beste emaitzak ere. Eta, bestetik, antzeko teknikak baliatu zituzten idazle modernista ugari, euskarara itzulita: aipatutako Ingeborg Bachmann eta James Joyce, baina baita Virginia Woolf, John Dos Passos, William Faulkner, Alfred Döblin, edo are gertuago, hertsiki *nouveau roman*-eko autoreak ez den arren talde horrekin lotura izan zuen Samuel Beckett; baita euskal esperimentalismoaren garaikide den neoabanguardia italiarrean kokatzen den Nanni Balestrini ere. Segur aski gaur egun testuinguru aproposagoa dauka irakurleak euskal literaturaren momentu hartako autoreen lanak baloratzeko argitaratu zirenean baino.

Bertako eta atzerriko testu esperimentalen *corpus* hori baliagarria izan liteke, gainera, oraingo euskal idazleentzat ere. Azkenaldiko nobedade esanguratsuekin lotuta –hala nola Miren Amuriza Plazaren *Pleibak* edo Uxue Alberdiren *Hetero*–, egileek adierazi dute berrikuntza estilistikorako nahia eta «lengoaia literario jakin bat praktikan jartzeko gogoia; ahozkotik gertuen egongo zen lengoaia» (Vargas Nieto 2025); baita hizkuntza literarioaren «potentzia eta posibilitateak» esploratzekoa ere, «ikusteko nondik zikindu edo hautsi dezakegun» (Sarriugarte Mochales 2024).

Hortaz, aspektu burutua daukan lehenaldi arruntean baino hobe irakur daiteke *Sekulorun sekulotan* gaur egun eskaintzen dituen balizko aukerei aterik itxi gabe. Badago, gainera, aditz forma bat horretarako, iraganaldia menturazko modaltasun batekin konbinatzen duena: irakur daiteke *Sekulorun sekulotan* iraganeko geroaldian.

BIBLIOGRAFIA

- Albisu, M; Landa, J. eta Uria, I. (1980) «Federiko Krutwig-ekin hizketan», *Susa*, <https://andima.armiarma.eus/susa/susa0104.htm>
- Azurmendi, J. (1980) «Ez dagoen krisia eta badagoena», *Oh Euzkadi*, 5, <https://andima.armiarma.eus/euzk/euzk0605.htm>
- Anderson, P. (1984) «Modernity and Revolution», *New Left Review*, I-144, 96-113 or..
- Bakhtin, M. (1978) *Ésthetique et théorie du roman*, Paris, Gallimard.
- Barthes, R. (1972) *Le degré zéro de l'écriture*, Paris, Seuil.
- Berardi, F. (2024) *Últimos fulgores de la modernidad*, Madril, Traficantes de sueños.
- Gabilondo, J. (1991) «“Obabazkoak”. Alegoria topologiko baten irakurketa politikoa», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, ASJUren Gehigarriak 14, 1257-1281 or..
- Genette, G. (1972) *Figures III*, Paris, Seuil.
- Jameson, F. (2007) *The Modernist Papers*, New York, Verso.
- Juaristi, J. (1987) *Literatura vasca*, Madril, Taurus.
- Lopez Adán, E. (1976) *Nacionalismo vasco y clases sociales*, Donostia, Txertoa.
- Mateo Gambarte, E. (1996) *El concepto de generación literaria*, Madril, Síntesis.
- Olarra, X. (2022) «Ulisesen itzulpena. EIZIE», https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak/langintzaxeheki/xabier-olarra-2022-ulisesen-itzulpena/lx2022_olarra_ulisesen_itzulpenaz-1.pdf

- Olaziregi, M.J. (2001) «Canonical and Non-Canonical Narrative in the Basque Context», *Revista internacional de estudios vascos*, 46, 1, 325-336 or..
- Ricardou, J. (1973) *Le nouveau roman*, Paris, Seuil.
- Santamaria, I. (2020) «Klagenfurtetik Vienara, Ingeborg Bachmann gidari: “Aldibereko”ren itzulpena», *Senez*, 51, 91-122.
- Sarasola, B. (2015) *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi*, Bilbo, Labayru.
- Sarriugarte Mochales, D. (2024ko azaroaren 27a) «Uxue Alberdi: “Konplexutasuna agertzeko lekua da literatura, ez lezioak ematekoa”», *Argia*, <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2895/konplexutasuna-agertzeko-lekua-da-literatura-ez-lezioak-ematekoa>
- Tinianov, J (1978) *Sobre la evolución literaria*, in Todorov, T. (ed.) *Teoría literaria de los formalistas rusos* (89-101 or.), Madril, Siglo XXI.
- Todorov, T. (2012) *Los géneros del discurso*, Bueno Aires, Waldhunter editores.
- Urkizu, P. (1993) «La influencia de las vanguardias en la literatura vasca», *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 3, 189-213.
- Urkizu, P. (1975) *Sekulorun sekulotan*, Donostia, Kriseilu.
- Urkizu, P. (2023) *Eskribu galduen bila. Autobiografia eta kultur kritikak*, Lezoko Udala.
- Vargas Nieto, L. (2025eko urtarrilaren 22a) «Miren Amuriza Plaza: “Kanpokoak hain argi identifikatzen eta salatzen genituen bitartean, barkaberak izan gara etxekeekin”», *Argia*. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2902/miren-amuriza-plaza>

